

## **NEUROZIENTZIAREN ARLOKO DOKTOREGO AURREKO BEKEN 2016ko DEIALDIA, TATIANA PÉREZ DE GUZMÁN EL BUENO FUNDAZIOARENA**

### ***Laguntzen ezaugarriak:***

12 hilabeteko 5 kontratu emango dira, eta gehienez ere 4 urtera arte luzatu ahalko dira. Bekaren bidez, urtean 23.500 euro gordin emango dira, bekadunari ordaintzeko eta harrera unibertsitateak Gizarte Segurantzaren kuotak ordain ditzan.

### ***Hautagaiek bete beharreko baldintzak:***

- a. Espainiako nazionalitatea
- b. Espainiako unibertsitate bateko doktoregoko programa ofizial batera sartzeko eskakizunak betetzen dituztela frogatu, 2016ko uztailean.
- c. Ingelesaren ezagutza frogatu, mintzatuz zein idatziz.
- d. UPV/EHUko sail edo institutu batean onartua izan dela frogatu.

**GARRANTZITSUA:** UPV/EHUk bertako sail edo institutu batekin bat egiteko asmoa duten hautagaien eskaerei baino ez die emango bermea.

### ***Zuzendariek bete beharreko baldintzak:***

Tesia zuzentzeko hautagaiek honako baldintza hauek bete behar dituzte eskaerak aurkezteko epea amaitzerako eta laguntzak irauten duen aldi osoan:

- a. Doktore titulua izatea.
- b. UPV/EHUrekin lotura mugagabea duen funtzionarioa edo lan kontratuduna izatea.
- c. 99/2011 EDk araututako UPV/EHUren doktorego programa bateko irakasle izatea.

**GARRANTZITSUA:** UPV/EHUk ez die bermerik emango baldintza horiek betetzen ez dituzten eskaerei.

### **Eskaerak aurkezteko epea eta modua:**

Hautagaiak bidali behar dio bere eskaera Fundazioari, mezu elektronikoko bat idatzita [becas.neurociencia@fundaciontatianapgb.com](mailto:becas.neurociencia@fundaciontatianapgb.com) helbidera. **2016ko uztailaren 22ra arteko (hori barne) epea** izango du horretarako

**GARRANTZITSUA:** Fundazioak ez du onartuko eskaera osatugabeak konpondu ahal izatea; eskaerok baztertu egingo dira.

### **UPV/EHUko izapidea:**

UPV/EHUko Ikerketaren Arloko Errektoreordearen sinadura lortzeko, eskatzaileek "Eskaera" agiria bidali beharko dute, oinarritzko datuak beteta, [pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus) helbidera. Postaren gaian "Tatiana bekak: Neurozientzia" aipatu beharko dute. **2016ko uztailaren 18ra arteko (astelehena) epea** izango dute horretarako.

Egun horretatik aurrera, ezingo da bermatu Ikerketako errektoreordearen sinadura garaiz lortuko dela

### **Harremanetarako:**

Fundazioari kontsultaren bat egiteko, deitu 91.444.33.41 telefono zenbakira edo bidali mezu elektronikoko bat [becas.neurociencia@fundaciontatianapgb.org](mailto:becas.neurociencia@fundaciontatianapgb.org) helbidera.

### **Informazio gehiago:**

<http://www.fundaciontatianapgb.org/convocatoria-de-becas-predotorales-en-neurociencia-2016/>